



<b>adimentsu</b> 'informatizaturik, inteligentea'	«Etxe <b>adimentsu</b> hartatik irten eta Jokinek berera jo zuen. Euri zaparrada ikaragarri gogorra ari zuen. Arineketan egin nuen handik etxerainokoa.»	(62)
<b>ahal nuenik eta gogorren</b> 'indar guztiekin estutuz'	«Elurra dela eta, hotza..."Nik Cola-Cao katiluari heltzen nion ahal nuenik eta gogorren" .»	(23)
<b>ahalke</b> 'lotsaturik'	«Bittorrek etsita egin zigun berba. Bizitza osoan beste inoiz baino okerrago sentitzen omen zen. Lotsaturik, mindurik. <b>Ahalke</b> .»	(75)
<b>ahapeka</b> 'isilka, xuxurlatuz'	«Txirrina jo zuenean, Jokinen mahaira zuzendu eta zerbait esan zion (Aureliok) <b>ahapeka</b> . Ni larri jarri nintzen.»	(76)
<b>aiamaka</b> 'kexuka, aieneka, "ai ama!"	«Zuk badaukazu lagun handi bat. Jokin. Alboko gelan <b>aiamaka</b> dabilena.»	(99)
<b>alborikara</b> 'albotik, zeharka'	«...pertsianen hustartetik argi izpiak sartu ziren. Fluoreszentearen argi zuria, behetik gora eta <b>alborikara</b> .»	(84)
<b>amaraun</b> 'Sarea, Internet'	«Amari "banoa" esan, platera eskaratzera eraman eta amaraunera berriz ere. Hortik datorkio ezizena.»	(24)
<b>amoratu</b> 'maiteminduta'	«Aita eta ama gazte amoratu bi zireneko argazkiren bat ere ikusia dut elurtza itzelak inguraturik.»	(39)
<b>atoan</b> 'berehala, arin baten'	«Buka ezak txokolatea eta <b>goazemak</b> atoan hemendik!»	(40)
<b>barrenak eduki</b> 'adorea, kuraia eduki, kementa'	«—Ez zekiat... Gizon arraroa duk, baina ez nitek esango horretarako gauza denik (...), ez <b>zeukak</b> horretarako <b>barrenik</b> .»	(57)
<b>begirasun</b> 'amorruzko begirada'	«Isilik gelditu ginen elkarri begira. <b>Begirasun</b> haserretu hari eutsi genion tarte batez. Gero, keinu lagunak egin genion elkarri.»	(89)
<b>beharrik...!</b> 'zorionez!'	«Euria..Gu bustita. Hotza". Beharrik berogailuak piztuak ziren!"»	(24)
<b>berbalapiko</b> 'hitzontzia, berbatia'	«—Bart esan zuten, berri garrantzitsuak jakingo dira gaur— jarraitu zion Iñakik, parkeko etxeetan bizi den ilehori <b>berbalapikoak</b> .»	(48)
<b>berrinahi</b> 'jakinmina'	«Badakigu nola baliatzen diren zeuen <b>berrinahi</b> eta odol beroaz. Badakigu hitz egiteko beldur zaretel, baina ezingo duzuen egia osoa esan arte joan.»	(106)
<b>beta</b> 'aukera, abagunea'	«...irakasleak ere mozarrotu ohi dira, barru-barruko nerabea berreskuratu eta ikasleekin sekretutxuei buruz eletan aritzeko <b>beta</b> hartzen dute.»	(68)
<b>bihotzerreak jota</b> 'samindurak jota, erreta'	«—Nire ahizpa ere <b>bihotzerreak jota</b> dago, ba! —segitu zuen Anek— ABLE madarikatu batek kontratatuta dabil geriatrikoan zaharrei atzeak garbitzen.»	(46)
<b>biok biotara</b> 'bikote legez, elkarren artean'	«Nik ez dut nahi berarekin <b>biok biotara</b> joan nahi.»	(74)
<b>buruargiarena egin</b> 'listoarena egin, azkarrarena'	«Baaai! badakizu. Horretxegatik utziko diozu <b>buruargiarena egiteari</b> eta mutil txintxoek egiten duten moduan egingo diguzu hitz.»	(99)
<b>domotika</b> 'etxea informatizatzeko sistema'	« <b>Domotika</b> sare bat dute instalaturik etxean.»	(58)
<b>ebasle</b> 'lapurrak'	«Edonongoak izan omen daitezke <b>ebasleak</b> , eta atzerriko matrikulak, jende ezezaguna, eta horrelakorik norbaitek gogoratzen duen jakin nahi dute.»	(78)
<b>egundo</b> 'inoiz ere, sekula ere'	«Baina nik ez dut <b>egundo</b> Marian negarrez ikusi...»	(26)
<b>eleketan</b> 'hizketan, berbetan'	«...irakasleak ere mozarrotu ohi dira, barru-barruko nerabea berreskuratu eta ikasleekin sekretutxuei buruz <b>eletan</b> aritzeko beta hartzen dute.»	(68)
<b>erpinburu</b> 'buruaren tontorra'	«—Zer darabilk <b>erpinburu</b> horreta, Jokin? ez du zerikusirik izango bozetoarekin?»	(34)
<b>eskaratze</b> 'sukaldea'	«—Zer duk nahiago —hasi zen barrea Jokin <b>eskaratzetik</b> — Coca-Cola ala hil?»	(16)



<b>eskeko</b> 'eskalea, behartsua'	«Sena ibaiaren ertzean margozten duen <b>eskeko</b> batena izan liteke margolana.»	(61)
<b>ezta hurrik eman ere</b> 'ezta pentsatu ere'	«Jokinek eta biok ez genekien zertan sartu ginenean egin denuenean egin genuena. <b>Ezta hurrik eman ere.</b> »	(11)
<b>goazemak</b> 'goazen!'	«Buka ezak txokolatea eta <b>goazemak</b> atoan hemendik!»	(40)
<b>gogotxartu</b> 'umore txarrean jarri, haserretu'	«...bosgarren pisu bateraino igotzeko modu bakarra aldapan gora oinez joatea oinez joatea denean, <b>gogotxartu</b> , ozpindu egiten naiz...»	(15)
<b>gorazarre</b> 'omenaldia'	«Txaloak, txistuak, <b>gorazarreak</b> , irainak, "Aupa itxaso!" irri gaziak aurkezleen ezpainetan eta malko gozoak gaueko erreginarenean begietan.»	(69)
<b>goretsi</b> 'goraipatu'	«—Abila haiz Burma! — <b>goretsi</b> ninduen Jokinek barrez.»	(38)
<b>hauteman</b> '-(a)z ohartu, somatu, konturatu'	«...etxe barnean gertatzen diren aldaketa guztiak <b>hautematen</b> dituen sensore bat daukate.»	(58)
<b>hazka egin</b> 'hatz egin, hazkatu'	«...nire aitaren belarriari <b>hazka egiteko</b> maniari buruz..., zer zekiat nik! Egunerok berba egiten duan gauez!»	(47)
<b>hondoa jota egon</b> 'leher eginda egon, nekaturik'	«Azken bi asteotan oso lo gutxi egin dut (...) <b>Hondoa jota</b> nago. Bederatzi ordu ilun eman ditut komisaldegian.»	(10)
<b>hotzituta</b> 'hozturik'	«Baina niretzat oso garrantzitsua da margolana eta bozetoa aurkitzea —esan zigun bortxaturiko leihotik sartzen zen aizeak <b>hotzitutako</b> bulego hartan.»	(76)
<b>idortu</b> 'lehortu, xukatu'	«...ni neureak egiten ari nintzen bitartean, eskuak <b>idortzeari</b> ekin nion nire alboan zegoena bereak eginda joan zen arte.»	(71)
<b>irabazte aldera</b> 'irabaztearren'	«...azken urteko ikasleek ikasbidaiari begira diru apur bat <b>irabazte aldera</b> antolatzen den festa.»	(68)
<b>izkin egin</b> 'uko egin, desaprobatu, itzuri'	«Burua hain nahasturik izan ez banu, ez nion ondo afaltzeko aukerari <b>izkin egingo</b> , baina gogo txarrez nengoela esan nien.»	(62)
<b>jerati</b> 'maitagarria'	«—Nor da? —gutxitan izaten nuen Jokin hain abegikor, hain <b>jerati</b> berba egiten entzuteko parada.»	(34)
<b>karraju</b> 'pasiloa'	«Euria. Gu bustita..."beste (ikaskide) asko ere gure entzera ibili ziren, institutuko <b>karrajuak</b> pixontzia baitziruditen gu ailegatu ginenerako.»	(24)
<b>lain</b> 'beste'	«Etxera heldu nintzenean ez nuen adorerik atzamar bat mugitzeko <b>lain.</b> »	(52)
<b>lanpas</b> 'ate aurreko tapiza, felpudoa'	«—Eta zuek? nola hemen? —galdegin zigun etxeko zapatilekin ONGI-ETORRI irakur zitekeen <b>lanpasa</b> zapalduz.»	(58)
<b>lar, larregi</b> 'gehiegi, asko'	«Bittor, Historia irakaslea "ez du berba <b>lar</b> egiten gurekin, baina klasean, gehiengoaren arreta bereganatzeko gaitasuna du.»	(12)
<b>larrutu</b> 'gibelak jan, gaizki esaka aritu'	«Hamar minututan Aureliogatik gaizki esaka aritu ginen, gogotik <b>larrutu</b> genuen aspertu ginen arte.»	(91)
<b>lausotu</b> 'lanbrotu, ilundu'	«Zigarro bat piztu du, Lucky Strike. Sakon zupatu eta, berriz ere sudurretik putz egin, ke artean <b>lausotu</b> du bere migostu aurpegia.»	(98)
<b>mela-mela eginda</b> 'erabat bustita'	«Euria. Euritakoa hartu... "Eskailerentan behera Edurekin egin nuen topo, Jokinen aitarekin. <b>Mela-mela eginda</b> zegoen".»	(21)
<b>mentura</b> 'kasualitatea, zortea'	«Hego aizeak bultzatu gintuen egin genuena egitera. <b>Menturak</b> , esango lukete pertsona helduek.»	(11)
<b>mingostu</b> 'samindu, garrastu'	«Zigarro bat piztu du, Lucky Strike. Sakon zupatu eta, berriz ere sudurretik putz egin, ke artean lausotu du bere <b>mingostu</b> aurpegia.»	(98)
<b>neure kautan</b> 'neure baitan, neurekiko'	«"Berdin da!" —pentsatu nuen <b>neure kautan.</b> »	(32)



<b>noranzkoa</b> 'norabidean, direkzioan'	«Buelta eman eta karraju estu eta luze hura gurutzatu genuen arineketan, Aurelioren biraoak zetozen muturraren kontrako <b>noranzkoan</b> .»	(83)
<b>oinaztarria</b> 'tximista'	«Trumoi hotsa kanpoan, <b>oinaztarriaren</b> flasha eta behetik gorako argia, oraindik ere.»	(84)
<b>ozpindu</b> 'umore txarrean jarri, erretxindu'	«...bosgarren pisu bateraino igotzeko modu bakarra aldapan gora oinez joatea oinez joatea denean, gogotxartu, <b>ozpindu</b> egiten naiz...»	(15)
<b>parada</b> 'aukera, abagunea, egokiera'	«—Nor da? —gutxitan izaten nuen Jokin hain abegikor, hain <b>jerati</b> berba egiten entzuteko parada.»	(34)
<b>purrustadaka</b> 'protestaka, muzin eginez'	«Ikerrek ez zuen denon ordeztutako irakurtzea beste aukerarik izan beste behin ere, bere kexu etsia <b>purrustadaka</b> agertu arren.»	(13)
<b>sabelako zorriak hil</b> 'jan, ase'	«Bitorrek meriendatzera eraman gaitu. <b>Sabeleko zorriak</b> hil eta kalera irten ginen. Zazpi eta erdiak ziren. Bitorrek autoa hartu du...»	(109)
<b>sastatu</b> 'zirikatu'	«Mikelek zakilkeriak esaten jarraitu zuen, bigarren lerrokoek arkatzen puntaz <b>sastatu</b> zituzten lehenengo lerrokoak behin eta berriz...»	(47)
<b>so</b> 'begirada'	«Jokin mahairantz abiatu zen eta, keinu dudati baten ostean, Bitorri zuzendu zion <b>soa</b> ...»	(30)
<b>suhartu</b> 'sutu, gartu, haserretu'	«—Festa!? Non? — <b>suhartu</b> nuen—, Festa deitzen al diok honi? —Ixo! Lasai hadi behingoz!»	(47)
<b>sukarraldi</b> 'kasketaldia, burutazioa'	«Isildu hadi Jokin! —saltsa ederrean sartzen ari gaituk zure <b>sukarraldi</b> bategatik eta ez dakik tontakeriak esan eta barre egiten baino!»	(51)
<b>taxuz</b> 'gogotik, emaro'	«Nik uste dut oraingoan elurra egingo duela; elurra <b>taxuz!!!</b> Ez dut uste aste honetan institutura joan beharrik izango duzuenik.»	(39)
<b>teleaginte</b> 'TBren mandoa'	«—Piztu ezak azkar! Jar ezak "Gaur Egun" <b>Teleagintea</b> bilatu nuen. —Mahaian? pianoaren gainean?...»	(52)
<b>tutueria</b> 'hodieria'	«Ez zegoen apurka-apurka jaisteko erabil genezakeen sokarik ere. Ez <b>tutueriarik</b> , ez kablerik, ez ezer! Hantxe gelditu behar izan genuen.»	(90)
<b>txorokil</b> 'artaburua, txoriburua, ganorabakoa'	«Han azaltzen ziren marrazki bizidunak; telebistan edozer kontatzeko prest dauden <b>txorokilak</b> ; mutil gihartsuak eta neska titihandiak.»	(67)
<b>txutxumutxu</b> 'zurrumurrua, hizki-mizkia'	«Aneren malkoak. besteen adarjotzea... Jokin, Armiarma eta Mikelen galderak, gainontzeko ikaskideen <b>txutxumutxuak</b> eta irriak...»	(75)
<b>ugerturik</b> 'herdoildurik, goroldioa duena'	«Jokinek esku artean zerabilen harria jaurti zuen. Harriak <b>ugerturiko</b> zakarrontzi bat jo zuen. Ddooooongggg.»	(56)
<b>zakilkeria</b> 'alukeria, tontakeria'	«Mikelek <b>zakilkeriak</b> esaten jarraitu zuen, bigarren lerrokoek arkatzen puntaz <b>sastatu</b> zituzten lehenengo lerrokoak behin eta berriz...»	(47)
<b>zatarra</b> 'itsusia, zikina'	«—Zuri gustatzen al zaizu? —galdetu zion Mikelek Armiamari. —Bai. Ez da <b>zatarra</b> —honek, aldizkariari begiak kentzeke...»	(27)
<b>zeken</b> 'diruzalea, zikoitza'	«...katalanak <b>zeken</b> samarrak direla egia izan arren.»	(33)
<b>zorrotzarri</b> 'aiztoak zorrotzeko harria'	«Hari gardenak, autoen bolanteak, Jokinek bere osabaren baserritik ekarritako <b>zorrotzarria</b> , Edozer.»	(55)
<b>zulobegitu</b> 'betazpiak, begipeak atera'	«Oso gutxi egiten nuen lo. Begi zuloak <b>zulobegitzen</b> ari zitzaizkidan.»	(66)
<b>zur eta lur</b> 'harrituta'	«—Esan behingoz nork agindu zizuen margolana lapurtzeko. <b>Zur eta lur</b> utzi gaitu. Begira geratu gataizkio. Ez genekien zertaz ari	(106)